



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

GRADUAREN ETA HEZKUNTZA BERRIKUNTZAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA
VICERRECTORADO DE GRADO E INNOVACIÓN EDUCATIVA

ERABAKIA, 2024ko OTSAILAREN 1ekoa, UPV/EHU/EHUko GRADUKO BATZORDEARENA, GRADUKO TITULAZIO OFIZIALETAKO IKASLEEN EBALUAZIORAKO ARAUTEGIKO 28. ARTIKULUA GARATZEN DUEN ARAU OSAGARRIA ONARTZEKO DENA (EBALUAZIO BEREZIA).

Graduko titulazio ofizialetako ikasleen ebaluaziorako arautegiak ezartzen du ikasleak ikasturte bakoitzeko irailean eta martxoan eskatu ahal izango duela irakasgaia gainditzea ebaluazio bereziaren bidez.

Aurreko deialdietan 28. eta 32. artikuluetan ezarritako epeen artean talka egin dela egiaztatu denez, eta irakasgaiaren ardura duen sailak eman behar duen txostena behar bezala betetzea errazteko, egokitzat jotzen da ikastegiko Epaimahai Bereziak aurkeztutako eskaera ebazteko epea luzatzea.

Horri dagokionez, kontuan hartu behar da Ikasleen Ebaluaziorako Arautegiak honako hau dioela lehenengo xedapen gehigarrian: *UPV/EHUko Graduko Batzordeari ahalmena ematen zaio arautegi hau garatuko duten arau osagarriak emateko.*

Aztertuta eta eztabaidatuta arau osagarri horren zirriborroa, Graduko Batzordeak honako hau

ERABAKI DU:

ONARTZEA Graduko Titulazio Ofizialetako Ikasleen Ebaluaziorako Arautegiako 28. artikulua garatzen duen arau osagarria. Arauak hau dio hitzez hitz:

Ebaluazio berezirako eskariak egiteko eta ebazteko epeak.

Ikasleek irakasgaiak ebaluazio bereziaren bidez gainditzeko eskariak egin ahal izango dituzte ikasturte bakoitzeko irailean eta martxoan. Eskariak egiteko azken eguna hilaren 5a izango da kasu bietan. Ikastegietako epaimahai bereziek irailaren edo martxoaren

ACUERDO DE LA COMISIÓN DE GRADO DE LA UPV/EHU DE 01 DE FEBRERO DE 2024, POR EL QUE SE APRUEBA LA NORMA COMPLEMENTARIA DE DESARROLLO DEL ARTÍCULO 28, DE LA NORMATIVA REGULADORA DE LA EVALUACIÓN DEL ALUMNADO EN LAS TITULACIONES OFICIALES DE GRADO, RELATIVO A LA EVALUACIÓN POR COMPENSACIÓN.

Establece la Normativa reguladora de la Evaluación del alumnado en las titulaciones oficiales de Grado que el estudiantado podrá solicitar el aprobado por compensación en los meses de septiembre y marzo de cada curso.

Habiendo constatado en las anteriores convocatorias una colisión entre los plazos establecidos en los artículos 28 y 32 y, en aras de facilitar la correcta cumplimentación del informe que debe emitir el departamento responsable de la asignatura, se considera procedente ampliar el plazo en el que el Tribunal de Compensación del centro deberá resolver la solicitud presentada.

A este respecto, debe tenerse en cuenta que la Disposición adicional primera de la Normativa reguladora de la Evaluación establece que "*Se faculta a la Comisión de Grado de la UPV/EHU para elaborar normas complementarias que desarrollen la presente normativa*".

Analizado el borrador de la norma complementaria presentada y, previa deliberación, este órgano

ACUERDA:

APROBAR la norma complementaria de desarrollo del artículo 28 de la Normativa reguladora de la Evaluación del Alumnado en las Titulaciones Oficiales de Grado, con el siguiente literal:

Plazos para presentar y resolver las solicitudes de compensación.

Cada estudiante podrá solicitar el aprobado por compensación en los meses de septiembre y marzo de cada curso. La fecha límite será el día 5 en ambos casos. El Tribunal de Compensación del centro deberá resolver antes de 30 de septiembre o de marzo, respectivamente.



*30a baino lehen hartu beharko dute erabakia,
hurrenez hurren.*

Erabaki honen berri emango zaie UPV/EHUko ikastegi guztiei, kontuan hartuta onartutako araua 2023/2024 ikasturteko martxoko deialditik aurrera aplikatuko dela.

Informar a los centros de la UPV/EHU sobre el presente Acuerdo, teniendo en cuenta que la norma aprobada resultará de aplicación a partir de la convocatoria de marzo del curso 2023/2024.

Leioa, 2024ko otsailaren 1a

En Leioa a 1 de febrero de 2024